

Ingurumena, osasuna eta bizi-kalitatea

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

AGENDA 2030




**GARAPEN
IRAUNKORRERAKO
HELBURUAK**



Kalkuluaren arabera, munduko erikortasun kargaren (leku eta denbora-tarte jakin batean gaixotzen diren pertsonen proportzioaren) %24 eta heriotza guztien %23 ingurumen-faktoreei egotz dakizkie. Hori dela eta, ingurumena hobetzea egungo gizartearen erronka nagusietako bat da, planetako biztanle guztien bizi-kalitatea hobetzea lortzeko.

Bizi dugun ingurumenak eragin garbia dauka gure osasun egoeran. Arnasten dugun airea, elikadura, gure bizimodua... guzti-guztiak dira faktore erabakigarriak.



Osasunak eta eguneroko errealitatearen beste faktore batzuek baldintzatzen dute bizi-kalitatea, eta faktore baldintzatzaile horien guztien pertzepzio subjektiboa da.

Horregatik, garrantzitsua da ingurumenaren eta osasunaren arteko elkarreragin-esparruetan ezagutzak aplikatzea, gaixotasunak murriztuko dituzten eta, beraz, bizi-kalitatea hobetuko duten prebentzio eta osasun publikoko estrategiak diseinatzeko.

Ba al zenekien...

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, ingurumena osasungarriagoa balitz, urteko 13 milioi heriotza saihestu litezkeela?

ZER NOLAKO ERAGINA DU INGURUMENAK GURE BIZI-KALITATEAN?

Marc Lalonde Kanadako osasun ministroaren arabera, osasuna kontzeptua lau multzo erabakigarriek baldintzatzen dute:

- Giza biologia: gorpuzkera, karga genetikoa, garapena eta zahartzea.

- Bizimoduak eta osasun portaerak: drogak, sedentarismoa, elikadura, estresa, indarkeria, gidatze arriskutsua, zerbitzu sozio-sanitarioen erabilera okerra.




Elikadura egokia oinarritzakoa da osasun ona edukitzeko.

- Ingurumena: kutsadura fisikoa, kimikoa, biologikoa, psikosoziala eta soziokulturala. Garrantzitsua da jabetzea lau talde handi hauetako edozeinek duela ingurumenean eragina. Ingurumena, jaiotzen eta hazten ikusten gaituen ingurua alegia, komunitate baten osasun-egoeraren eragile nagusia da. Egia da, ingurumen narriatua duten komunitateetan, giza biologiar lotutako elementuak, bizimodua eta osasun arretaren antolamendua ere ezegokiak izaten direla.

- Osasun laguntza sistema: baliabideen erabilera okerra, osasun laguntzak eragindako kontrako erreakzioak, itxaron zerrenda luzeegiak, laguntzen burokratizazioa.






Horregatik, ezberdinak izaten dira ingurumen arazo hauek eragiten dituzten ondorioak.




Errealitate horrek fenomeno berria sorrarazi du: ingurumen migrazioa. Komunitate osoek euren bizitokiak abandonatu behar izan dituzte inguru horretan izan diren ingurumen-inpaktu mailakatu edo bat batekoen ondorioz. Errealitate horren adibide da batez ere gutxien garatutako herrialdeetako egoera, lehorte, tsunami, lurrikara eta abarren eraginez.

GIZA OSASUNEAN ERAGINA DUTEN INGURUMEN FAKTOREAK

TOKIAN TOKIKO INGURUMEN FAKTOREAK

 <p>Edateko ur eta saneamendu horniketa</p>	<ul style="list-style-type: none"> Kutsatu gabeko ur eskasiak gaixotasunak eragiten ditu, hala nola, beherakoa, trakoma, eskistosomiasia eta konjuntibitisa. Ura edukitzeko aukerak berak ez du bermatzen ur hori kutsatu gabe dagoenik; ur horniketa administratu egin behar da eta iturriak babestu.
 <p>Etxebizitza eta habitata</p>	<ul style="list-style-type: none"> Osasuna babestuko duen etxebizitza egokia ez edukitzea familia eta erkidegoen pobrezia ondoaria da.
 <p>Ingurumen kutsadura</p>	<ul style="list-style-type: none"> Hiritako airearen kutsadura gaixotasun jakin batzuekin lotuta daude, hala nola, biriketako gaixotasun larri eta kronikoekin, kardiopatiekin, biriketako minbiziekin eta adin txikikoekin min neurologikoekin.
 <p>Produktu kimikoen erabilera</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ingestio edo inhalazioagatiko intoxikazioak eragiteaz gain, airearen, uraren eta elikagaien kutsadurak osasunean berehalako eta epe luzeko eragina dauka.
 <p>Lanbideak eragindako arriskuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> Lanbideak eragindako arriskuak askotarikoak dira: zarak eragindako entzumen galerak, muskulu zein hezurretako lesio kronikoak, hautsarekin, metalekin, disolbatzaileekin eta beste-lako produktu kimikoekin kontaktuan egoteak eragindako gaixotasun kronikoen infekzioak...

INGURUMEN FAKTORE GLOBALAK

 <p>Aldaketa klimatikoa</p>	Eragin zuzenak	Adibidez: heriotza kopuruak areagotuko lirateke, bero-bolada sarriago eta larriagoen eraginez.
	Zeharkako eraginak	Adibidez: ekosistemaren aldaketa eragingo luke, elikagaien produkzioan eta, ondorioz, pertsonen elikaduran aldaketak eragina.
 <p>Itsasomailaren gorakada</p>	Eragin zuzenak	Adibidez: uholdeak sarriago gertatuko lirateke, eta heriotza eta kalteak areagotu.
	Zeharkako eraginak	Adibidez: ur gazia ur gozoko akuiferoetan eta paduretan sartuko litzateke, egun dagoen ur gozo kopurua izugarri murriztuta.
 <p>Ozono geruza agortzea</p>	Eragin zuzenak	Adibidez: Azal sentikorra duen jendea gehiago erreko litzateke, minbizia edukitzeko arriskua areagotuko litzateke...
	Zeharkako eraginak	Adibidez: zenbait eltxoren bizi-ziloari eragingo lieke eta, ondorioz, gaixotasun infekzio-kutsakorrek izateko arriskua areagotu.

(*) Ondorio zuzenak: Ondorioaren kausek zuzenean eragiten dituzten ondorioak.

Zehar ondorioak: Jatorrizko ondorioak eragiten dituzten faktore ezberdinek eragiten dituzte azken ondorioak.

EKOSISTEMEN ZERBITZUAK

Ekosistemen zerbitzuak ezinbestekoak dira pertsona ororen ongizatea eta osasuna bermatzeko. Oinarrizko beharrak asetzeaz gain, fluxu-aldaketek biziraute-bideei eragiten diete, baita diru-sarrerei tokiko migrazioari eta, tarteka, gatazka politikoari ere.

EKOSISTEMEN ZERBITZUAK		
	DEFINIZIOA	ADIBIDEA
Horniketa zerbitzuak	Pertsonentzako onura zuzena dakarten ondasunen horniketa, sarritan diru-balio argia dutenak	Elikagaiak Ura Ehunak Erregaiak
Erregulazio zerbitzuak	Ekosistemek burutzen dituzten funtzioen sorta, sarritan balio handikoak dira, baina, oro har, ohiko merkatuei ez diete diru-baliorik eransten.	Klima erregulazioa Ura Gaixotasunak
Kultura zerbitzuak	Ez dute onura material zuzenik ematen, baina gizartearen behar eta nahiak areagotzen laguntzen dute, eta ondorioz, hori kontserbatzeagatik ordaintzeko gogoia sortzen zaie pertsonari.	Espiritualak Estetikoak Jolaserakoak Hezitzaileak
Laguntza zerbitzuak	Pertsonentzako onura zuzenik gabeak, baina ekosistemek funtzionatzeko ezinbestekoak, beraz, gainontzeko zerbitzuen zeharkako arduraduna.	Lehen mailako produkzioa Lurzoruaren formazioa

ETORKIZUNERAKO ERRONKAK

Orain arte uste genuen lurreko ingurumenaren narriadurak gainontzeko izaki bizidunei eragiten zela soilik. Desagertzea, habitataren suntsipena... gure egunerokotasunetik at zeuden kontuak zirela uste genuen. Orain gutxi hasi gara kontzientzia hartzen eta geu ere sistema honetako parte garela ulertzen. Planetan gertatzen dena ez da ezberdina gizakiari dagokionean, gizakia ere planetaren parte delako. Horren eredu argia dira azken hondamendi naturalak.

Inguru segurua gizakiaren oinarrizko beharra da. Eta inguru seguru batek osasun baldintza egokiak bete behar ditu: gizakiak kontsumitzeko moduko ura, elikagaiak, etxebizitza, hezkuntza, osasun zerbitzuak, ekitatea eta gizarte segurantzak. Baina ingurumen heziketa ere behar da.

Beharrezkoa da, orduan, tximeleta efektuaren teoria kontuan izango duen hausnarketa egitea: «Kaosaren fisikariek esaten dute Tokion hegialak astintzen dituen tximeleta batek ekaitza eragin dezakeela Amsterdamen. Tximeleta efektuaren adibide horren bitartez linealtasun eza irudikatzen dute diziplinaren jarraitzaileek, hau da, sistema bat nola sortzen diren ezagutzen dugula, baina ez dakigula nola bukatuko den».

GEHIAGO JAKITEKO

- Osasunaren Mundu Erakundea (OME).
- «Salud ambiental, desarrollo humano y calidad de vida», Pedro Mas Bermejo.
- Aldaketa Klimatikoa eta Giza Osasuna – Arriskuak eta Proposamenak. Laburpen eguneratua 2008. OME, OPS, MME eta NBIP.
- «Informe sobre la salud en el mundo La Financiación de los sistemas de salud. El Camino Hacia La Cobertura Universal», OME.
- «MIGRACIONES AMBIENTALES Huyendo de la crisis ecológica en el siglo XXI», Jesus M. Castillo. Virtus argitaletxea.